

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Taldea hiru kidek osatzen dute: Ohiane, Manal eta Itziar. Horiek rol desberdinak beteko dituzte beren trebetasunen eta interes-arloen arabera.

Ohianek, arduratuko da erosleekiko harremanak kudeatzeaz, eta bezeroekin tratu hurbil eta eraginkorra izango duela ziurtatuko du. Era berean, produktua saltzeko eta banatzeko behar den logistika guztiaren arduraduna izango da, eta zorroak erabiltzaileei garaiz eta behar bezala iritsiko zaizkiela bermatuko du.

Itziarrek, berriz, marketina eta produktuaren diseinua egingo ditu. Eguzki-zorroak ezagutarazteko publizitate-estrategiak sortzeaz arduratuko da, baita haien itxura diseinatzeaz ere, produktua erabiltzaileentzat erakargarria eta funtzionala dela ziurtatuz.

Azkenik, Manalek produktua sortzeko alderdi teknikoa eta mekanikoa landuko ditu. Zorroa osatzen duten piezak mihiztatzeaz arduratuko da, hala nola eguzki-plakak eta karkasak, eta azken produktua eraginkortasunez eta segurtasunez fabrikatzeko beharrezko makinak erabiliko ditu.